

FUNTSEZKO JARDUERAK:

Zenbait jarduera burutuko ditugu bezeroen beharrak asetzearren. Lehenik, argazkiak eta bideoak jasoko ditugu geure bezeroetatik. Ondoren, beraien nahien arabera moldaketak egingo ditugu, hau da, behar ez diren bideo zatiak kendu eta argazkiak, soinua (musika) eta efektu bereziak txertatuko ditugu. Bukatutakoan, egindako lana bidaliko diegu . Oso ohikoa da internetarekin eta horrelako motako webguneekin arazoak edukitzea. Hori ekiditeko, bezeroei dropbox karpeta batean pasatuko diegu gmail erabiliz. Gainera, edozein arazo izanez gero, deitu eta arazoak konpontzen ahaleginduko gara. Eskaintza internetez egitearen helburu nagusia bezeroek edozein momentutan eta etxetik mugitu gabe argazkiak eskura izan ahal izatea da.